

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an hartutako erabakiaren laburpena: Udako Euskal Unibertsitateak 2019 urtean antolatzen dituen ikastaroetara joateko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 468576

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Ikastaroa hasten den eguna baino urtebete lehenagotik Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.
2. Matrikula egiten den unean langabea izatea edo unibertsitate-ikasketak egiten aritzea.
3. Jardunaldietara joatea (2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko azaroaren 18ra bitartean ospatutako jardunaldiak).

Bigarrena. Helburua

Udako Euskal Unibertsitateak 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko azaroaren 18ra antolatuko dituen ikastaroetara joateko beka ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 1.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2019ko azaroaren 22 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 19a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO